

ERALDATU ZURE ETXEA



**FONTANERIA
CALEFACCION Y GAS**

Utzubar Industrialdean (ARBIZU)
www.galartxa.com
galartxa@galartxa.com
948 460 027



*"Iturgintza, berogintza, energia
berriztagarriak, kalderen
mantenimendua, komunak...
kalitatea eta zerbitzua
da gure lehentasuna"*

"Betiko beroa, gaurko teknologia"

AURKIBIDEA

3

ARKITEKTURA

3 or. 2020ko arkitektura-joerak

4 or. Etxe pasiboak

4 or. Zurezko etxe pasiboak



5

IKERKETAK

Arazoei aurre hartzeko bidea

6

ETXEGILEAK

6-7 orr. Nola jakin zein obra lizentzia eskatu behar duzun?

7 or. Harria: errepikatzen den materiala



8 or. Hasieratik bukaerara, tarteko buruko minik gabe

9

BEROKUNTZA

Biomasazko galdarak eta berogailuak Nafarroan

10

ASEGURUAK

Ongi babestu, ezustekoa bikoitza izan ez dadin

11

ELEKTRIZITATEA

Panel elektrikoa: instalazio elektriko osoa babesten duen kaxa

12

ZURA

Zura eta etxebizitza, etorkizun handiko bikotea



13

ZERAMIKA

Material bat, milaka aukera



14

PINTURA

Hormek badute zer esan

15

SUKALDEAK

Sukaldea da etxebizitzetan gehien erreformatzen dena

16

LEIHOAK ETA ITXITURAK

16 or. Aire sartzeko zirrikutua edo oztopoa?

17 or. Espazioa moldatu, eraldatu

18

ITURGINTZA

Ezkutuan dago temperatura egokia lortzeko giltza

19

BAINUGELAK

Bainugela nola berritu



20

DEKORAZIOA

Lau proposamen



22

ZAHARBERRITZEAK

Etxeak zaharberritzeko laguntzak

2020KO ARKITEKTURA-JOERAK

Zure etxerako erabateko aldaketa nahi baduzu, azaleko aldaketa hutsa baino gehiago, eta buruari eragin nahi badiozu, 2020. urterako arkitektura-joerak azalduko dizkizugu.

Egungo joera oso lotuta dago Japoniako arkitekturarekin. Bere sentsibilitateak eta espazioak interpretatzeko hain modu bitxiak gremio osoa bereganatu zuen. Baina, beste xehetasun eta aldaketa garrantzitsu batzuk datoz 2020ko arkitektura-joeren eskutik.

5 joera arkitektoniko zure etxea eraldatzeko

Jarri arreta sukaldean, zure etxeko kanpoko eremuetan eta material berrietan, 2020an zure etxea goitik behera aldatuko duten 5 arkitektura-joerak eka-riko baititugu hemen.



SUKALDEA NAGUSI

Denbora gehien ematen dugun etxeko espazioa da. Gutako askok bertan ere jaten dugu. Aurtengo joerek hala berresten dute: sukaldea da protagonista. Tamaina handitu, eta etxeko beste leku batzuekin ere konekta daiteke, hala nola jantokiarekin.



MATERIALAK

Bi alderdi bereizten dira. **Industrialismoa:** burdinaren, aluminioaren, zuraren eta plastikoaren alde egiten du; eta **minimalismoa:** abangoardiaren eta modernismoaren aldeko apustua, kostu baxuak, isolamendu handiagoa eta ecofriendly filosofia bilatuz.

ETXE PASIBOAK

Aukera gisa sortu zena bizi-filosofia bihurtu da. Etxe hauen diseinu arkitektonikoaren helburua eskura dau- den baliabideak erabiltzea da, energia aurrezpena handituz. Jasangarritasunaren bidez bizi direnen osasuna eta bizi- kalitatea hobetzen lagunduz.

KANPOALDEARI GARRANTZIA

Patioak, terrazak eta lorategiak ez dira udarako bakarrik. Hotzetik edo euritik babesteko itxitura bat baduzu, neguko egunetan irakurtzeko edo tertulian egoteko erabil dezakezu. Joerek kanpo-espazioak egokitzearen alde egiten dute, urte osoan etekina ateratzeko.



ETXE ADIMENDUNAK

Etorkizuneko kontua dirudien arren, eraikuntza mota hau gero eta gehiago eskatzen da.

Teknologiaren eskutik argiaren erregulazioa, temperatura eta segurtasuna. Smartphone edo tableta baten bidez, modu intuitiboan kontrola daitezke hozkailuak, garbigailuak, kafe-makinak... konfigurazio aurreratuekin.

Zure bizimodura egokitutako
PROIEKTUAK
Eraikinak Ebaluatzen Txostenak




MARIASUN
ERDOZIA ULAIAR **ARKITEKTURA**

mariasunerdozia@gmail.com **665716857**
Zugarreta Kalea 36-1 Esk - ETXARRI ARANATZ



ARKITEKTOA
maria pilar bakaikoa



PROIEKTUAK



650 831 816
www.mariapilarbakaikoa.com



ETXE PASIBOAK

ZUREZKO ETXE PASIBOAK

Egur zaharra etorkizuneko materiala izan liteke. Iraganera itzulia, egungo teknologiarekin.

Eraikuntzak aldaketa asko izan ditu azken urteotan. Barnerosotasuna, osasuna eta energia-aurrezpena gero eta gehiago eskatzen dituzte erabiltzaileek. Horregatik, gero eta indar handiagoa hartzen ari da zurezko egiturak dituen eraikuntza, familia bakarreko etxebizitzak eta etxebizitza kolektiboak egiteko.

Gaur egun, etxebizitzak egiteko zurezko hainbat eraikuntza-sistema daude. Europan gehien erabiltzen denetako bat, CLT (Cross Laminated Timber) edo zurezko panel kontralaminatua da. Zurezko taula kolatuez

osatutako panelak dira, eta hauen orientazioa (0° edo 90°) aldatu egiten da aldizka. Zuntzen norabidea aldatu egiten da, eta horrek konpresioarekiko erresistentzia eta dimensio-egonkortasuna handitzen ditu.

Europan, etxebizitza-erakuntzaren %25 inguruan erabiltzen da gaur egun zura. Edozein diseinutara egokitzeko duen gaitasunari esker, kontralaminatutako zura erabiltzeko aukerak ia mugagabeak dira, eta familia bakarreko egurrezko etxebizitzak baino altuagoak diren eraikinak egiteko aukera ematen du. Era berean, aukera ematen digu, oro har, eraikitzeke modu desberdinak proiektatzeko, espazioaren konfigurazio desberdinak proiektatzeko eta irekiduren kokapenean, formetan eta tamainan askatasuna izateko.

Material naturala, estankoa eta transmitantzia termikoaren balio onak dituen, Etxe Pasiboak egiteko material idealtzat hartzen da. Etxe pasiboa "burua erabiliz egindako" eraikin edo etxebizitza bat besterik ez da. Dagoeneko ez gara konformatzen etxe zabal eta argitsu batekin, gehiago nahi dugu: aurrezpena, eta hori lortzeko eskura ditugun baliabide guztiak aprobetxatzea. Oso eraikin erosoak, osasungarriak eta hermetikoak dira, eta berokuntza eta hozte-beharrak %85era arte murrizten dituzte. Hainbat aplikazio informatikorekin kalkulatu-



tako etxeak dira, energia-eskariaren eta hermetikotasunaren balio oso txikiak lortzeko. Etxebizitzak egin ondoren, hainbat proba eta saiakera egiten dira, lortutako balioak proiektatutakoarekin bat datozela egiaztatzeko.

Baldintza horiek betetzen dituzten etxebizitzak egiten dituen enpresa bat bada Altsasu. Material naturalak erabiltzen ditu horiek egiteko, eta etxe pasiboak egiteko PASSIVHAUS estandarrak ematen dituen tresnekin kalkulatu dituzte proiektuak.

Enpresa honek SANTA CRUZ-MK2 du izena. Eraikuntza-eskaera berriei erantzuteko beharregatik sortu zen. Etxebizitzak eraikitzeaz gain, barneproiektuak eta barnealdeak berritzeko proiektuak ere eskaintzen ditu.

Etxebizitza horiei buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzue edo Sakanan egindako proiekturen batera joan nahi baduzue, bidali mezu elektronikoa bat helbide honetara: info@mk2arkitektonura.com

ERAIKUNTZAK:

- ETXE PASIBOAK
- ERREFORMAK
- ERREABILITAZIOA

INTERIORISMOA:

- ALTZARIAK
- SOFAK-ATSEDENA
- DEKORAZIO PROIEKTUAK

SANTA CRUZ
MK2 ARKITEKTURA

BEHEKO BENTA 5
ALTSASU · 948 563 308



IKERKETAK

ARAZOEI AURRE HARTZEKO BIDEA

Azterketa geologikoak eta hidrologikoak funtsezkoak dira proiektu baten bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa neurtzeko

Dena ez da urre kolorekoa eta itxuraz egokia zirudien lursailak ezusteko bat baino gehiago gorde dezake izkutuan. Eraikuntza arloan, ezusteko horiei ahalik eta tarte txikiena uzteko lanean ari dira hainbat profesional; arazoei aurre hartzeko bidea eginez. Azterketa geotekniko eta hidrogeologikoak dira proiektu bat teknikoki eta ekonomikoki bideragarria ote den neurtzeko bitartekorik eraginkorrenetako bat. Non eraiki behar den jakitea funtsezkoa baita nola eraiki jakiteko.

Lur-geruzak eta lur-azpiko materialen ezaugarriak eta portaera neurtzen dituzte ikerketa geoteknikoen bidez. Azterketa hidrogeologikoen bidez, berriz, luraren eta lurpearen iragazketa-ezaugarriak, inguruko ur-emariak eta isurketa-uren maila. Azterketa horiei esker, eraikuntza-lanak lursailaren ezaugarrietara egokitzen dituzte. Horrela, eraikuntza fasean edota eraiki ondotik sor daitezkeen arazoei irtenbidea ematen zaie hasiera-hasieratik.



KONTSUMO BAXUKO ETXEBIZITZA LAKUNTZAN

Passive House Designer formakuntza daukagu eta eraikuntza mota horretan erabiltzen diren irizpideak jarraituz diseinatu dugu Lakuntzako etxebizitza hau, ia kontsumo gabekoa. Horretarako hiru ardatz jarraitu dira: isolamendu handia, leiho oso efizienteak eta hermetikotasuna, aire infiltrazioak saihesteko. Hori guztia, berotasuna berreskuratzen duen aireztatzeko sistema batekin

osatzen da eta diseinuan eguzkiaren energia ahalik eta gehien aprobetxatzeko orientazioa kontutan hartzen da. Horrela, energia kontsumoa simulatzeko herramienta informatiko batekin simulazioak egin ditugu, behar den efizientzia mailara iritsi arte. Etxe honek zehazki, 24cm-tako isolamendua du fatxadan eta 33cm-takoa teilatuan. Leihoen balantze energetikoa ere egin da, eta kalkulatu da, eguzkiaren bitartez irabazten duten energia galtzen dena baino handiagoa da, balantze positiboa da beraz. Horrela, eguzkiarekin irabazten

den energia etxea berotzeko ahalbidetzen da, baita gailu elektronikoek askatzen duten berotasuna (hozgailuak, telebistak, etab.) eta kasik nahikoa da hori bakarrik etxea berotzeko. Behar den energia ekarpen urria arotermia bitartez ematen da, hau ere energia garbia izanez. Beraz, etxebizitzaren kontsumo energetikoa oso oso baxua da, egingarria inbertsioa urte gutxitan berreskuratuz. Honetaz gain, etxearen egitura ere egurrezko CLT panelez egin da, eraikuntza fasea azkartuz eta material naturalak erabiliz. IGER ARKITEKTURA

ZEIN DA ARKITEKTOEN EGITEKOA?

Arkitektoa eraikuntza prozesu guztiaren ezagutza globala eta integratzailea duen profesionala da.

- Ikuspegi estetiko zein funtzionala kontuan hartuta bezeroari irtenbidea emanez, proiektuak garatzen

saiatzen dira.

- Obraren esku hartuko duten gainerako profesional guztiak koordinatu eta alde aurretik onartutako epeak eta aurrekontuak errespetatzen direla gainbegiratzen dute.

IGER

ARKITEKTURA



Andoni IGoa 693473951
Iñaki ERdocia 647226325
ETXARRI ARANATZ

Proiektu berriak, zaharberrietan.
Passive House diseinuak, egurrezko arkitektura, fatxadetan isolamendua, igogailuak, aholkularitza, IEE, etab.



NOLA JAKIN ZEIN OBRA LIZENTZIA ESKATU BEHAR DUZUN?

Eraikuntza-lan edo eraberritze bat egin baino lehen obrako lizentziak eskatu behar izaten dira. Obra handiko lizentzia edo obra txikikoa eska daitezke eta jende gehienak ez daki argi zer desberdintasun dauden bien artean. Honela laburbil daitezke:



OBRA HANDIKO LIZENTZIA:

Oin berriko obra eta, oro har, eraikuntza baten egitura ukitzen edo fatxada-teilatuak aldatzen dituzten handitze, aldatze edo eraberritze-lanak eta urbanizazioko obrak egiteko behar den lizentzia da. Adibidez, etxe berri bat eraiki, fatxadan leihoak ireki edo espazioen banaketak aldatu behar direnean karga-hormei eta zutabeei eragiten badie. Eraikin baten erabilera aldatzen denean, lokal bat etxebizitza bihurtzen denean adibidez, obra handiko lizentzia eskatu behar da.

ETXE BIRGAIKUNTZA



- Teilatuak
- Fatxadak
- Terrazak
- Arkitektura-oztopoak kentzen ditugu
- Harri lanak
- Enpresendako mantentze-lanak



**Construcciones
IRUMENDI s.l.**
Eraikuntzak

948 57 62 68 | Estafeta kalea, 31 | 31830 Lakuntza
construcciones@irumendi.com | www.irumendi.com

BESTE LAN BATZUK





- Obra berriak
- herrietako etxeak
- Obra publikoak...





aldaba s.l.
reformas y rehabilitaciones

Estaldurak eta etxe-aurreak
Etxebizitzak
Eraikuntza berria
Ilogailuak eta atariak



948 576 222 • 626 563 025 • Mikel Arregi kalea, 39 • Lakuntza • tecnico@reformasaldaba.com • www.reformasaldaba.com

**OBRA TXIKIKO
LIZENTZIA:**

Eraikuntza edo instalazioaren egitura ukitu ez eta lurraren edo lurrazpiaren okupaziorik ez dakarten obra guztiak egiteko behar den lizentzia da. Aurrekontu txikiko lanak izaten dira: sukaldeko paretak eta zorua eraberritzea, komunetako estaldurak eta komunak aldatzea, zoruak aldatzea, margo-lanak edo trenkada aldatu edo kentzen bada ere bai.

Obretarako udal-lizentziaren tasa aurrekontuan aitortutako zenbatekoaren %5 ingurukoa izaten da. Hondakinak kudeatzeagatik ere fidantza jarri behar da eta udalak agindutako zabortegean egin dela egiaztatzean bueltatzen da.



HARRIA: ERREPIKATZEN DEN MATERIALA

Harriak erabilera asko dauzka: etxeko paretak, sarreretako arkuak, pareta edo leihoetako izkinak janzteko erabil daitezke eta baita etxe-ingurua babesteko harri-paretak egiteko ere. Kanpoan ez ezik, barrenean ere diseinuko elementu bezala indarra hartzen ari da: tximinia inguruak, hormak... apaintzeko erabiliz.

Granitoa, gneisa, hareharria, kaliza, marmola, arbela eta pizarra dira gehien erabiltzen direnak. Material naturalak izanik, eraikuntzan erabili aurretik landu egin behar izaten dira: harrobietatik erauzi, moztu, landu eta leundu.

**Babes Ofizialeko azken etxebizitza
Etxarri Aranatz**

76 m² etxebizitza
+ 30 m² garaje
+ 4 m² trasteleku

ERAIKUNTZAK

JAMSAR S.L.

948 460 254

Nagusia, 15 etikoa · ETXARRI ARANATZ

info@construccionesjamsar.com

www.construccionesjamsar.com

**EZKARATZAK BERRITZEN DITUGU**

- Igogailuak jartzea
- Fatxada eta teilatua berritzea

ERAIKUNTZA

- Etxe bakarrak
- Energia-hobekuntzadun sistemen bitartez egindako birgaitzeak
- Industria nabeak

**5 BOE Arbizun**

- 50 URTETIK GORAKO esperientziaren bermearekin
- KONPROMISORIK GABEko aurrekontua eginen dizugu!



HASIERATIK BUKAERARA, TARTEKO BURUKO MINIK GABE

Aurrekontuak eskatu, dokumentazioa osatu, gremioak antolatu eta lanen jarraipena egiten dute eraikuntza-entresa zein arkitektoek

Etxebizitza bat hutsetik eraiki edo eraikita dagoen bat eraberritu edo egokitu nahi denean, inurrien antzera, piezaz pieza osatu behar izaten da katea.

Badira, kate hori osatu eta gain-begiratzea gustuko dutenak, profesional bati edo besteari deitu, dena hitzartutako denbora eta moduan egiten dela egiaztatu... obraren xehetasun guztiak hurbiletik jarraitzea erabakitzen dutenak.

Beste hainbatek, ordea, nahia-go dute ardura hori arkitekto edota eraikuntza enpresen esku utzi, buruhausteak ekiditeko modu bat baita. Etxea berritzeko erabakia hartzen denetik, lana bukatu arte haiek koordinatuko baitute guztia eta beraz, bezeroak, ia ez du inongo buruko minik izaten.

Gremioen kudeaketa profesionalen esku uzteak dakartzan onurak ondorengoak dira:



607 352 617 · javierbetelu@gmail.com
Herriko Plaza 4 · 31830 LAKUNTZA (Nafarroa)

1. Langile profesionalak kontratatzen dituzte eta erantzukizun zibileko aseguruia bermatzen dute.
2. Aurrekontu ezberdinak aurkezten dizkiote bezeroari. Guztiak idatziz jasota.
3. Dokumentazio guztiaren kudeaketa egiten dute.
4. Eraikuntza lanak antolatzeaz gainera, jarraitzeaz ere egiten dute.
5. Aurrekontuek BEZa izanzen dutela ziurtatzen dute, horrek bermea ematen duelako.



LEGARBE
ERAIKUNTZAK S.L.



629 420 515 · 948 461 075
info@construccioneslegarbe.com



Arluzepe 2, behea
Etxarri Aranatz

SUSTAPENA eta ERAIKUNTZA





BEROKUNTZA

BIOMASAZKO GALDARAK ETA BEROGAILUAK NAFARROAN

Biomasa gure galdaretan erregai gisa erabiliko dugun landare-jatorriko materia organikoa da. Biomasa basoak mantentzeko eta suteak ekiditeko beharrezko garbiketak egiten direnean jasotako gure basoetako hondakinetatik datorren zura hartzen du barnean, erabilera energetikorako baita laboreak ere, hala nola nekazaritzako hondakinak probesteko, lastoa adibidez.

Egurraren errekontza energia iturri iraunkorra da, eta karbonoaren ziklo naturala errespetatzen du. Egurraren errekontzan karbono dioxidoa eta ur lurruna sortzen dira. Eguzkiaren energiarekin egur berria sortzen duten elementuak dira karbono dioxidoa eta ura. Gasolioarekin, gasarekin eta ikatzarekin karbonoa ateratzen da lurpeko biltegietatik, eta atmosferara isurtzen dira, baina egurrarekin atmosferan modu naturalean dabilen karbonoa berrerabiltzen da. Egurraren energiak ez dio klima aldaketari

laguntzen. Berogailu sistema hau aukeratuz gero, erregai merkeagoa bat erabiltzeaz gain, administrazioaren laguntzak jasotzeko aukera ere badago.

Orleghy Renovables-en, gure basoetatik datorren landare-jatorriko biomasan zentratzen gara. Biomasa hiru modutan erabil dezakegu, ondoren egiten zaion prozesaketaren arabera.

MANUEL BERGERA S.A.
ITURGINTZA - BEROGINTZA
- GASA

948 562 852 · 617 474 961
Zelai, 33 · 31800 ALTSASU (Nafarroa)
mabersa_alsasu@wanadoo.es



- Biomasa galdarak
- Estufak eta tximiniak
- Geotermia eta aerotermia
- Pellet salmenta on-line
- Instalazioa eta zerbitzu tekniko ofiziala

948 562 604 · Gipuzkoa kalea, 17 · Altsasu
info@orleghy.com · www.orleghy.com



ONGI BABESTU, EZUSTEKOA BIKOITZA IZAN EZ DADIN

Estalduren txostena ongi irakurri, etxeko ondasunen balioa zehaztu eta aseguruak barne hartzen duela jakintzat jo ordez egiaztatzea komeni da

Mamia bezain garrantzitsua izaten da azala eta etxe aseguruetan ere, biak babestu behar dira. Mamiak ondasun personal eta materialei egiten die erreferentzia eta norberak hauta dezake horietatik zein babestu nahi dituen; azalak, berriz, etxebizitzaren egitura-elementuak hartzen ditu barrenean, eta aseguratu aurretik balioztatzea egitea komeni da. Estaldurak ere banan bana irakurri eta beharren arabera egokitzea komeni da. Ezbeharren bat gertatuz gero, kalte-ordaina diruz edo tresna ordezkatuz jasoko genukeen argitu beharko da. Hirugarrenen-aseguruak biltzea ere komeni da, etxeko matxurak gertatzen direnean ohikoa baita besteengan kalteak eragitea.



**URAREKIN LOTUTAKO EZBEHARRAK,
PUSKATUTAKO KRISTALAK, LAGUNTZA
ZERBITZUAK, GERTAKARI ATMOSFERIKOAK
ETA LAPURRETAK EDO LAPURREK ERAGINDAKO
KALTEAK KONPONTZEKO LAGUNTZA DIRA
BEZEROEK ESKATZEN DITUZTEN ZERBITZUAK**

Aseguruak prezio hobereanean

Agentzia Bakarra

Allianz 

Aseguruak

**HNOS. SAYAS
MAZQUIARAN S.L.**

948 563 559 · Gartzia Ximenez 25 · ALTSASU
etxarri@sayasmaz.com
948 111 411 · Larrañeta19 behea · ETXARRI ARANATZ

Etterako aseguruak

Zure etxea dena delakoa izanda ere

%25^{eko} DESKONTUA

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU


La aseguradora global de confianza

PANEL ELEKTRIKOA: INSTALAZIO ELEKTRIKO OSOA BABESTEN DUEN KAXA

Estatistiken arabera, etxeko suteen erdiak argindar akatsek eragindakoak izaten dira. Hori hala izanda, ulergaitza da eskualdeko hainbat etxebizitza eta eraikinetan segurtasun elektrikoko araudiak betetzen ez direla jakitea.

Gainkargatutako entxufeak, zirkuitulaburrak, kable zurituak edo etengailu automatiko eta magnetotermiko zaharrak dira huts egin dezaketen elementu elektrikoetako batzuk. Horiek eragindako kalte pertsonalak (elektrokuzioa) edota materialak (suteak) ekiditeko kaxa elektrikoa ongi muntatua edukitzea ezinbestekoa da.

Zein elementuk osatzen dute kaxa elektrikoa?

Kaxa elektrikoak fusible, etengailu magnetotermiko eta etengailu diferentzialen bidez zirkuituaren atal bakoitza babesten du. Instalazio elektriko batean gutxienez distribuzio-koadro bat badago, etxebizitza gehienetan bezala, distribuzio-koadro honetatik argindarra bigarren mailako bertze distribuzio-koadro batera edo gehiagotara banatu liteke. Koadro elektriko seguru batek, indarrean dagoen araudi guztia bete beharko du (BTEE, ITC-23, etab.).

Kaxa elektrikoa energia elektriko hornitzen duen konpainiak behar bezala zigilatuta ez badago, ezbehar bat gertatzen bada, aseguru-etxeak ez du kalteordaina ordainduko.

Kaxa elektrikoek eskaintzen dituzten segurtasuna eta prestazioak areagotzeko gailu espezifikoak gehitzeko aukera ere badago: babes magneto-termikoa eta diferentziala bermatuko duten etengailu



automatikoak, argindarra etenda zerbitzua zintzilik ez gelditzea bermatzen duten sistemak jarrita, gaintentsioen aurkako babes bereziak jarrita... Etengabe berritzen doan sektorea da eta horregatik, dauden aukerak zeintzuk diren jakiteko profesionali galdetzea da hoberena...

Potentziarekin saltoka

Konpainia elektriko baten zerbitzua kontratatu aitzinetik,

garrantzitsua da kontsumoa zein izanen den pentsatzea: zenbat argindar eta zertarako erabiliko dugun aurreikustea. Izan ere, ez dira berdinak izanen bost senideko familia batek edo bakarrik bizi den pertsona batek izanen dituen premia.

Potentzia jakin bat kontratatu beharko dugu eta tentuz egin, kontsumoa kontrolatzeko konpainia elektrikoak etengailu

magneto-termiko automatiko bat jarriko baitu. Xahutzen den potentzia kontrataturiko potentzia baino handiagoa bada etengailuak salto egiten du; argindarrak gabe utziz. Dena den, alderantziz ere gerta daiteke; kontsumoa kontrataturiko potentzia baino askozaz ere txikiagoa izatea. Kasu horretan kontratua berrikusi eta aldatuta, sos batzuk aurrezteko modua izanen duzue.



**INMOAGURAIN
BILIARIA**
Altsasu



**Aukeratu
non bizi nahi duzun!**

Pol. Ind. Isasia, 2 of.2
31800 Altsasu-Altsasu
Telf: 948 468 077
Mov: 676 434 183

www.inmobiliaria-agurain.com



ZURA

ZURA ETA ETXEBIZITZA, ETORKIZUN HANDIKO BIKOTEA

Zura, berezkoak dituen estetika eta ezaugarri teknikoengatik, etxebizitzak eraiki eta janzteko erabiltzen da

Merkatuan etengabe material berriak agertzen diren arren, egurrak, oraindik orain, hainbat etxebizitzetan eta eraikinetan, material erabilienetakoa izaten segitzen du.

Material iraunkorra da oso eta berezkoak dituen ezaugarriak galdu gabe, landu eta zaharberritzeko aukera ematen du. Gainera, zuraren bueltan sortu den sektoreak nabarmen egin

du aurrera; erabiltzaileen premietara egokitu eta arauzko prestazio tekniko guztiak betetzen dituzten produktuak eskainiz.

Zura material berriztagarria da eta fabrikazio-prozesuan energia gutxi kontsumitzen duenez, eraikuntzaren arloan geroz eta esparru zabalagoa hartzen joan da. Material moldaeraza, iraunkorra, berriztagarria, arina eta birziklagarria ere badenez, egurra etxe askoren goitik beherako diseinuen ardatza da: zorua, eskailera, altzari edota teilatueta aurki daiteke baita eraikinen bizkarrezurra den egituran ere.

Non eta zertarako?

Egur mota bat edo beste bat aukeratzeko, pieza hori non jarriko den (barruan edo kanpoan) eta zertarako erabiliko den hartu behar da kontuan; leiho bat edo lurzoru bat egiteko erabiliko den zura ez baitute berdin landuko.

Lurzoruetan, esaterako, haritza da nagusi; baina, neurri txikiagoan, pagoa eta intxaurrendoa ere erabiltzen dira. Kanpoaldeko lurzoruetan, berriz, Ipe espeziea da gehien erabiltzen dena, termikoki landutako egurrekin batera. Batzuen edo besteen erabilera, bere ezaugarriek baldintzatuko dute, baita joera estetikoek, iraunkortasunak eta egonkortasunak ere.

Egurrak duen hezetetasunaren %12-18 idortzea eta bernizak erabiliz babestea beharrezkoa da zahartu, hanpatu edota urdindu ez dadin.

Estilo bakoitzarekin zuzenean lotzen da egur kolore eta bukaera jakin bat: nordikoa (zurizta), retroak (tonu ilunak), erromantikoak (zaharkitu itxura)...

Garai batean puri-purian egon ziren zoru dizdiratsuak albo batera utzi eta zuraren bukaera ahalik eta naturalena izatea bilatzen da orain: zurak berezkoa duen xarma balioan jarritz.

Carpintería
SALGADO
aroztegia

SUKALDEKO
ALTZARIAK
HORMA-ARMAIRUAK
BARRURAKO ATEAK
ZOLADURAK

948 467 457 | 687 425 285
carpinteriasalgado@gmail.com
Isasia Industrialdea, 5
ALTSASU

Eñaut



 **617 616 085**

enautigeltserritza@gmail.com

**eraberritzeak
igeltserritza**

**VICTOR RUIZ
ASKARGORTA**

**Igeltseritzako
konponketa
txikiak**



660 091 476

ZERAMIKA

MATERIAL BAT, MILAKA AUKERA



Iraunkorrak eta kalitatezkoak diren produktuen aldeko apustua egiten dute kontsumitzaileek eta bi baldintza horiek ezin hobeto betetzen ditu zeramikak. Horma eta zoruak janzteko orduan aukera ohikoenetako bat da eta geroz eta gehiago dira egongela, logelak edo etxebizitzako beste espazioak janzteko ere material hau aukeratzeko dutenak. Material gogorra izateaz gain, gutxienezko zaintza eskatzen du, instalatzeko erraza da eta beste material batzuekin primeran ezkontzen da. Formatu, kolore, akabera, tamaina eta balizko milaka konbinazio daude merkatuan eta horregatik zeramika erabiltzeko muga bakarria irudimena izanen da.



Xurgapen zentralizatua eta aireztapena

ASPILAN

www.aspilan.comTejeria kalea, 31 | 31809 Ziordia
948 468 109 | 609 337 086

Energia aurreztu zure etxea isolatuz
Obrarik gabe
Hormen arteko intsuflazio sistemak

FINANTZATZEKO AUKERA

ISOLAGOIEN

660 091 456 - 647 913 740
ALTSASU - NAFARROA



HORMEK BADUTE ZER ESAN

Laukiek eta paper margotuek boladan segiko duten arren, 2020 urtean arrakasta izanen duen joera bat bada, hori, koloreak konbinatzea izanen da. Hormaren erdia kolore biziz margotu eta beste erdia tonu pastelakin janztea, gela bakar bat margotzeko hiru edo lau kolore erabiltzea... orain arteko ikuspegia hankaz gora jartzeko ordua da!

ARROSA, BEIGEA ETA GRISA

Hain modan dagoen ekialdeko estiloarekin bat egiten duten koloreak dira eta ongi baino hobeki ezkontzen dira elkarrekin.



GOROLDIOAREN PAREKOA

Egur naturalari protagonismoa ematen dieten landa giroko diseinuetan hormak berdez margotzea gomendatzen dute: tonu ilun xamarretan.



LUR KOLEORA ETA KORALA

Diseinu modernoak boho giroko estiloarekin lotzeko bidea ematen duten koloreak dira.



URDIN ILUN ILUNA

Urdin ilunaren eta beltzaren artean dagoen tonua, horixe gomendatzen dute hormetako bat nabarmendu nahi bada. Emaiza oso dotorea da.



ETA SABAIA ERE MARGOTUKO BAGENU?

Indartsu heldu den joera da. Dena den, adituek kolore eta konposizioak aukeratzeko orduan neurritz jotzeko gomendatzen dute espazioa beteegia gera ez dadin.



JAVIER ZELAIA

Pintura eta mikrozeimentua 648 143 615
ALTSASU

Zaharberritzeak eta obra berria

Barneko dekorazioa

Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe



SUKALDEAK

SUKALDEA DA ETXEBIZITZETAN GEHIEN ERREFORMATZEN DENA

Sukalde batean estetika bezain garrantzitsua da erabilgarritasuna. 2020ko dekorazio joerek bi ezaugarri horiek ederki uztartzen dituzte

Nanoteknologia altzarrietan

Ate eta altzarrietako materialeetan nanoteknologia baliaitu dute eta emaitza praktikoa lortu dute: behin eta berriz ukituta ere, hatzmarkarik agertzen ez den materiala.

Harraska eta txorrotak koloreztatu

Gainazaletan ongi integratzeko, harraska eta txorrotak ere koloreztatzea proposatzen dute. Altzairu herdogaitza izanen da erabiliko den materiala, baina tindatuta: berdea, beltza, urdina, zuria... aukera handia dago.

Pentsaezinak ziren irtenbideak

Ez dago ezinezkorik. Espazio eta beharretara ahalik eta hobekin egokitzeko diseinu bakoitza

ESEKITA DAUDEN ALTZARIAK

Geroz eta gehiago ari dira zabaltzen altzariak hormetan esekita jartzen dituzten diseinuak. Sukaldearen itxura nabarmen aldatzen da eta gainera azpialdeen garbiketa errazten da.

personalizatu egiten dute.

Kolore atenporalak

Nahiz eta zuriak kolore erabiliena izaten segitzen duen berdea, urdina, grisa, beigea eta beltza sukaldeko altzarien diseinuetara ezin hobeki egokitzen dira.

Etxetresnak

Etxetresnak erosteko garaian, kontsumoa, salneurria... izaten dira kontuan hartzen diren irizpideak baita diseinua ere. Fabrikatzaileek geroz eta gehiago zaintzen dute estetika. Hala, koloretako etxetresnak, ateispiluak dituztenak... geroz eta gehiago ikusten dira.



Gainazaletan estetika eta erresistentzia eskutik doaz:

- **Marmola:** Goxotasuna emanen dio sukaldeari, baina delikatua da eta erraz zikintzen da.
- **Mikrozementua:** Indartsu datorren joera, bertze material batzuk baino merkeagoa. Ongi jasaten du ura, baina argi kolpeekin.
- **Harria:** Lodiera egokitu daiteke eta gutxi dira beroa harriak bezain ongi jasaten duten materialak. Erraz zikintzen dela da aurkako faktore bakarra.

- **Granitoa:** Protagonista izan da urtetan beroa ongi jasan eta lodierarekin jokatzeko aukera ematen duelako.
- **Koriana:** Material organikoa ez den arren, oso egokia da diseinu bereziak osatu nahi direnean, gainazalak osorik, ageriko lotunerik gabe moldatzen baitira.
- **Silestonea:** kuartzo naturala erabiliz, aukera interesgarria da, ez duelako pororik eta orbanekiko erresistentea delako.



AIREA SARTZEKO ZIRRIKITUA EDO OZTOPOA?

Egoera kaxkarrean dauden leiho zaharrak eraginkorrak diren beste batzuegatik ordezkatzeari ariketa erraza eta azkarra da. Egunetik egunera, geroz eta hermetikoagoak dira jartzen diren leihoak.

Leihoaren egituraren %20 perfla da eta %80 beira, baina lehenengoa bigarrena bezain garrantzitsua da, egoera txarrean dagoen perfilak ez duelako airearen sarbidea oztopatuko.

Emaitzarik onenak lortzeko beiraren kalitatea (mota, lodiera, aire-kamararen lodiera...), markoaren materialaren kalitatea (egurra, altzairua, aire iragazkortasuna, mantenimendu beharra...), leihoa itxi eta irekitzeko sistemak... kontuan hartu behar dira. Horretaz gain, leihoaren instalazioa ongi eginda egotea funtsezkoa da, beira eta markoa ongi lotuta egotea kasu, infiltrazioak ekiditeko.



ALUMINIOZKO LEIHOAK

Temperatura aldaketekiko iraunkorrak dira eta hainbat koloretan pinta daitezke. Gainerako materialek baino azalera ttikiagoa izan ohi dutenez kanpoko argia gehiago aprobetxatzea ahalbidetzen dute.



EGURREZKO LEIHOAK

Isolatuak onak izateaz gain, estetikoki ederrak dira. Etxebizitza askotan erabiltzen dira.

PVC LEIHOAK

Isolatuak termiko eta akustiko bikaina direnez, maiz, toki hotzetan erabiltzen dira. PVCa material birziklagarria eta garbitzeko erraza da, ura eta xaboia baino ez baita behar.

LEIHO MISTOAK

Arrazoi estetiko eta funtzionalak tarteko, gero eta gehiago erabiltzen dira. Teilatuetako leihoetan esaterako barnetik egurrezkoak eta kanpotik aluminiozkoak diren leiho mistoak dira nagusi.



**DEKOVEN
NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.



948 468 360 · 690 641 860 · Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia
ALTSASU

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

**KALITATEA
AURREZKIA
EROSOTASUNA**

Etxe pasiboetarako egokia
Isolamendu nukleo indartsua
Beirak lehorrean jarrita
Aparteko azala koloreztatua

www.ventanasegoki.com

egoki@ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti
ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

ESPAZIOA MOLDATU, ERALDATU

Itxiturak erabilia, obra handiegirik egin gabe, etxebizitzan metroak edota argitasuna irabazi, espazio bat berrantolatu edota erabilgarritasunaren aldeko pausoa eman daiteke. Segidan dituzue hainbat ideia:

1. Espazio irekiak sortzeko joera egon da azken urteetan, baina batzuetan espazioak mugatu nahi izaten dira. Hormak erabili ordez beirate bat jarrita, argitasuna galdu gabe espazioa bitan banatzea lortzen da. Erabat itxi gabe, muga bisual bat sortzen da.

2. Gurean udako egun beroek ez dutenez luzaroan irauten, balkoi edo terrazan itxitura

jarrita, metro horiek etxebizitzari gehituko zaizkio, urte osoan erabili daitekeen espazio bat lortzen da horrela. Beharren arabera, ireki edo ixteko aukera eskaintzen duten sistemak izaten dituzte.

3. Sukaldea eta egongelaren arteko banaketa egiteko, ezkerretik eskuinera, bi noranzkoetan mugitzen diren ateark jar daitezke: muga fisiko finkorik ez dagoen tokian, beharra dagoe-

nean, bi espazioetako bat ireki edo itxi nahi denerako baliagarria da.

4. Patio itxi batera ematen duen logela bat edota argitasun nahikorik ez duen espazio bat argitzeko egokiak izan daitezke itxiturak. Hormak bota eta bere ordez kristala eta aluminioa erabiliaz egitura bat osatzen da. Kristal opakuak erabilia intimitatea galdu gabe, argi gehiago sartzen da.



aluminios Erviti

www.aluminioserviti.es
Tif: 948 50 08 13

CORTIZO
SISTEMAS DE ALUMINIO Y PVC PARA LA CONSTRUCCION

ALUMINIOA eta PVC-a



COR 80 INDUSTRIAL PASSIVHAUS

Passivhaus Institute-aren zuztagiduna, klima bero eta epelendako



- Isolamendu handidun aparrak markoan eta kristalean
- Bero-zubiaren haustura prestazio handidun hagazka isolatzaileekin
- Uw 0,86 W/m²K-tik soilik
- 80 mm-ko perfleria
- 65 mm-ko beiratas



A 84 PASSIVHAUS 10

Passivhaus Institute-aren zuztagiduna, klima bero eta epelendako



- Altzairuzko indargaria bero-zubia hausteko
- Uw 0,74 W/m²K-tik soilik
- 84 mm-ko eta 6 ganberako perfleria
- 54 mm-ko beiratas



#SomosPassivhaus



ITURGINTZA

EZKUTUAN DAGO TEMPERATURA EGOKIA LORTZEKO GILTZA

Zoru azpian hodi-sare bat osatzen da eta hodi horietan joan-etorrian dabilen uraren temperatura egokituta lortzen da giroa berotu edo freskatzea

Berria dirudien arren, zoru erradiatzaile bidezko berokuntza-sistema duela 2.000 urte inguru sortu zen. Antzinako Erromako

eraikin batzuetan labe batek eraikineko geletara beroa bidaltzen zuen lurrean egindako zuloen bidez. Gerora, Erdi Arotik

XX.mendera arte, etxeen kanpoko aldean jartzen zen tximinia zen bero-iturria; tiroa horizontala izaten zen eta etxea zeharkatzen zuen zoru hotza berotuz. Ideia horiek garatu eta 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, gaur egun erabiltzen den zoru erradiatzaile bidezko berokuntza-sistema zabaltzen joan da.



Kontuan hartu beharrekoak:

- Galdara etengabe piztu eta itzaltzea beharrezkoa ez den tokietarako gomendatzen dute; inertzia termikoarekin funtzionatzen duenez, pixkanaka lortzen da nahi den temperatura.
- Oso garrantzitsua da instalatu aurretik azterketa bat egitea. Lurzoruaren eta gainazalaren artean 10-12 zentimetro inguruko tartea behar da hodi-sistema jarri ahal izateko eta kasu guztietan ezin da egin.
- Inbertsio ekonomikoa sistema tradizionalarena baino handiagoa da, baina luzera begira, inbertsio hori berreskuragarria da. Gainera, beste sistema eraginkorrekin konbina daiteke: eguzki-energia, aerotermia, geotermia... energia-konsumoa murriztuz.

Nola funtzionatzen du?

Zoru azpian uniformeki banatutako hodi-sare bat da sistema honen oinarria. Hodi hauetatik ura joan-etorrian dabil eta uraren temperatura egokituz eraikinak berotu edo freskatzeko erabil daiteke sistema berbera. Etxebizitza edo eraikina berotu nahi denean ura 35-40 gradu arteko tenperaturan pasatzen da zoruaren eta mortero geruza baten azpitik. Freskatu nahi denean, berriz, ura 17 gradu inguruan ibiliko da zorupetik, era honetan gehiegizko beroa xurgatuz eta freskura eskainiz.

ITURTRIKI

**ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA**

Ivan Sobredo

627 486 844 · Altsasu

zitek

**mota guztietako
desataskoak
ur-ihesaldien
detekttagailua**

671 618 999 - 671 618 880
Bakea kalea 6 · Altsasu
info@zitek.es · www.zitek.es

BAINUGELA NOLA BERRITU

Bainugelak berritzeko inbertsio handia egin behar izaten da, beraz, garrantzitsua da hasi aurretik dena planifikatzea. Aurrekontu bat ezarri behar da eta aukera posible guztiak mahai gainean jarri. Inspirazioa behar baduzu, 2020ko azken joerak bildu ditugu zuentzat:

- Gehien erabiltzen diren materialak zura, kristala eta baldosa ttikiak dira, baita terrazoa eta marmola ere.
- Urre koloreko metalek, material naturalekin kontraste polita egiten dute.
- Azulejuak diseinu ederrak osatzeko erabil daitezke, horma dotoreak osatuz.
- Bainuontziei protagonismoa ematea proposatzen dute, txoko batean izkutuan egon ordez,



erdi erdira ekarriz.

- Landareak bainugelak apaintzeko erabiltzea ere boladan dago.

- Zuria izaten zen duela gutxira arte bainugeletan nagusitzen zen kolorea. Orain, ordea, koloreak ez du muga-

rik: altzariak, bainuontziak, osagarriak, hormak... kolorea nahi duenak, badu aukera.



IRURA



948 460 187
610 523 717
jesusirura@telefonica.net
anderirura@gmail.com



www.iruramateriales.com
Utzubar industrialdea
ARBIZU

Eraikuntza arloko eta berritze lanetarako mota guztietako materialak ditugu

- TEILAK
- ISOLAMENDUAK
- VELUX LEIHOAK
- MARGOAK
- TXIMINIAK
- ZERAMIKAK
- BURDINDEGIA...



**DISEINUA
BOROBILDU**

Ertzak, formak... borobiltzeko apustua egin dute diseinatzaileek. Lanparak, altzariak, egongelako aulki edo besaulkiak... guztia borobil-borobila izanen da.

DEKORAZIOA

LAU PROPOSAMEN

**EKIALDEA ETA
IPARRALDEA LOTU**

Japonia eta Norvegiak bat egitea posible ote da? Diseinatzaileek baietz diote. Japandi izena eman diote ekialdeko ukituak eta zertzelada nordikoak nahasten dituen joerari.





Eraikuntzarako nahi duzun guztia

**ZERAMIKAK
BAINUGELAK
MARGOAK...**

948 564 185
Iruñeko etorbidea, 30
ALTSASU

www.lastadi.com



GARAI BERRIETARA EGOKITU

Altzarien eta osagarrien sektoreak pauso bat haratago eman eta diseinu adimendunak sortu dituzte: tablet edo mugikorrak kablerik gabe kargatzeko aukera ematen dutenak.



TXIKIENEN NEURRIRA EGINA

Montessori filosofiarekin bat egin eta haurren logeletako diseinuak birpentsatu dituzte. Autonomia irabazten dute haurrek, euren neurrira egokitzen diren altzariekin.



ZERAMIKAN ADITUAK

salmen etxea

PORCELANOSA

inalco

APAVISA
PORCELÁNICO

PERONDA
CERÁMICAS

TAU
cerámica



ETXEAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK

Nafarroako Gobernuak etxebizitzetan eta etxebizitzetarako eraikinetan egiten diren konpontzeko, hobetzeko eta araudira egokitzeko obrak egiteko dirulaguntzak ematen ditu. Sakanan 235 eraikin zaharberritu zituzten laguntza hauei esker

Eraikin batek 25 urte baino gehiago izatea eta espazioaren % 50 baino gehiago etxebizitzarako prestatuta izatea dira etxebizitzetan obrak egiteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak eskatzeko baldintzetako bi. Eraikina ez da erabat hustuko gainera, ez dira etxebizitza berriak sortuko eta obra-lizentzia eta obra gauzatzeko ezin da eragozpenik egon. Bestetik, ezin dira obrak hasita egon kalifikatu aurretik, hau da, dirulaguntzak obrak hasi baino lehen eskatu behar dira. 50 urtetik gorako eraikin bat bada EET Eraikinak Ebaluatzeko Txostena egina izan beharko du.

Eraikinak zaharberritzeko arrazoiak, besteak beste, bi izan daitezke. Alde batetik, arkitektura oztupoak kentzea eta, bestetik, eraikinaren ingurutzaila termikoa hobetzea. Bi kasu hauetan erkidegoak sustatu behar ditu hobekuntzak.

Igogailurik gabeko eraikinetan oztupoak erabat kentzeko, gehienez 8.000 euro emango da etxebizitza bakoitzeko eta 10.000 euroko laguntza hamaika etxebizitzako eraikin bat bada. Kasu honetan, dirulaguntza, % 45ekoa izango da. Dagoeneko igogailua duten eraikinetan gehienez 5.000 euroko dirulaguntza emango da (obraren % 30a dirulaguntza litzateke). Oztupoen araudira erabat egokitu gabe dauden eta igogailurik ez dute eraikinetarako gehienez 5.000 euroko dirulaguntza emango da etxebizitzako (% 25eko dirulaguntza) eta araudira erabat egokitu gabe, baina igogailua duten eraikinetan gehienez 3.000 eurokoa izango da laguntza (% 20ko dirulaguntza).



MARIA PILAR BAKAIKOA

EZABU


Nafarroako Gobernuak etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko eskaintzen duen zerbitzua da, Sakanako Mankomunitatean du bulegoa.

948 464 867
LAKUNTZA

Bestetik, eraikinaren ingurutzaila termikoa hobetzeko eskuhartze orokorreko proiektuetarako % 50eko dirulaguntza jaso dezakete eraikineko jabeek, betiere 7.500 euro baino gutxiago bada, etxebizitza bakoitzeko. Instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzeko gehienez 6.000 euro emango dira, % 40ko dirulaguntza. Hirugarren aukera bat badago eta horretan etxebizitzaren barruko berokuntza-instalazioari eratzunak jartzea

eta kontagailua instalatzea da, eta gehienez 3000 euro emango dira etxebizitza bakoitzeko, dirulaguntzarekin % 20.

Etxebizitza askotako eraikinetan ez ezik, Nafarroako Gobernuak eraikinak zaharberritzeko dekretuan pertsona fisikoendako ohiz kanpoko dirulaguntzak aurreikusten ditu. Kasu honetan, gehienez, 12.000 eta 25.000 euro banatzen ditu etxebizitza familiabakarretan edo lehenta-



sunez zaharberritu beharreko eremuetan. Dirulaguntzak % 50etik % 5erakoak izango dira, baldintzaren arabera: diru-sarrerak SARA baino 2,5 aldiz txikiagoak eta gutxienez % 40ko desgaitasuna duen pertsonaren egokitzea; 65 urtez gorako eta 35 urtez azpiko sustatzaileak edo ezkontideak izatea; lehenetsunez zaharberritu beharreko eremuan egotea, familia ugariak izatea; terrorismo eta genero-indarkeria biktima edo gizarteratze errentaren hartzaileak izatea.

Sakanan guztira 235 herritarrek eskatu dituzte eraikinak zaharberritzeko dirulaguntzak 2019an.

2018an, aldiz, 314 herritarrek onurak izan zituzten Nafarroako Gobernuak esleitutako laguntzetarik. Altsasun izan ziren dirulaguntza jaso duten zaharberritze gehienak: 83. Bigarren postuan Etxarri Aranatz dago 67 eraikinekin. Irurtzunen 36 kasu izan ziren eta Olatzagutian 12. Sakanako beste herrietan, zaharberritze bakarraren edo bost zaharberritzeren artean egon dira.

Guztira, Nafarroako Gobernuak ia 1.500.000 euro banatu zituen Sakanan eraikinen zaharberritzeak egiteko. 2018an ere antzeko kantitatea eman zuen Gobernuak; 1.500.000 pasatxo.

Hauek ez dira guk erabiltzen ditugun lanabesak

Gureak ezagutu nahi?



DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

info@gkomunikazioa.eus

Foru plaza, 23-1. Altsasu

